**Espediente zk./**Nº Expediente: 2024SDBD0033
**Gaia/**Asunto: Legamia 2025. Arte bizien sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka / Legamia 2025: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas
**Eskatzailea**/Solicitante: ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

**LEGAMIA 2025. ARTE BIZIEN SORKUNTZA ETA BITARTEKARITZA EGONALDI PROGRAMETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ZEHATZAK.**

**LEHENENGOA.- Xedea**

Deialdi honen helburua da Legamia 2025 dirulaguntza ematea arte bizien sorkuntza eta bitartekotza egonaldi programetarako. Errenterian egoitza duen programa honen bidez, arte biziekin (antzerkia, dantza, zirkua) zerikusia duten proiektu artistikoak sortzeko eta ikertzeko prozesuak erraztu eta lagundu nahi dira, edozein fasetan, eta eragina izango dute udalerriko beste erakunde eta kolektibo batzuekin egingo den bitartekaritzaren bidez.

Programa honen ezaugarri nagusienetakoa da sorkuntza bera Errenteriako eragile eta herritarrekin partekatzeko beharra. Horretarako Errenteriako Kultura departamentua eta honekin lankidetzan aritzen diren eragileen artean garatzen den bitartekaritza plangintzan parte-hartzea ezinbestekoa izango da.

**BIGARRENA.- Dirulaguntzen partida eta banatuko den gehienezko kopurua**

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldez aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean.

Deialdi hau, Errenteriako Udalaren aurrekontu propiotik finantzatuko da. Udalak programa honi 0830.481.02.333.10 Arte Biziak Egonaldi Programa partidako 32.000€ eskainiko dizkio 2025. ekitalditik.

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

**BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE LEGAMIA 2025: SUBVENCIONES PARA PROGRAMAS DE RESIDENCIAS DE CREACIÓN Y MEDIACIÓN DE ARTES VIVAS.**

**PRIMERA.- Objeto.**

El objeto de la presente convocatoria es la concesión de la subvención Legamia 2025 para programas de estancias de creación e intermediación de artes vivas. Mediante este programa, con residencia en Errenteria, se pretende facilitar y apoyar procesos de creación e investigación de proyectos artísticos relacionados con las artes vivas (teatro, danza, circo) en cualquiera de sus fases y tendrán su impacto mediante la mediación que se realizarán con otras entidades, colectivos del municipio.

Una de las características principales de este programa es la necesidad de compartir la creación con los agentes y la ciudadanía de Errenteria. Para ello será imprescindible la participación en la planificación de la mediación que se desarrolle entre el Departamento de Cultura de Errenteria y los agentes que colaboran con él.

**SEGUNDA.- Partida de subvenciones y cantidad máxima a conceder**

Sobre la base de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria, esta convocatoria se está tramitando con carácter previo, es decir, en un ejercicio presupuestario previo a la resolución y ejecución del gasto.

La presente convocatoria se financiará con cargo al presupuesto propio del Ayuntamiento de Errenteria. El Ayuntamiento destinará a este programa 32.000 € de la partida 0830.481.02.333.10 correspondiente a Programa de Residencias de Artes Vivas desde el ejercicio 2025.

En caso de que posteriormente, se incrementara el importe de dicha partida, mediante la oportuna modificación de crédito,se podría proceder a una nueva autorización del gasto imputable a esta convocatoria.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de esta convocatoria.

2025eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2025 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

**HIRUGARRENA.- Pertsona onuradunak**

**TERCERA.- Personas beneficiarias**

Arte bizien sorkuntza eta bitartekaritza prozesuak egin ditzakeen edozein pertsona fisikok, juridikok edo pertsona fisikoen taldek egin dezake eskaera. Hemendik aurrera “konpainia” gisa hartuko dira.

La solicitud podrá ser realizada por cualquier persona física, jurídica o agrupación de personas físicas que pueda realizar procesos de creación y mediación de artes vivas. A partir de ahora tendrán la consideración de “compañía”.

Ezin izango da dirulaguntza hauen onuradun izan, Errenteriako Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren laugarren oinarrian jasotako baldintzak betetzen ez duen pertsona fisiko edo juridikoa.

No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas físicas o jurídicas que no cumplan los requisitos establecidos en la base cuarta de las Bases Generales que rigen la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Errenteria.

**LAUGARRENA.- Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioa**

**CUARTA.- Solicitud y documentación e información que debe acompañarla**

Interesatutako pertsonek edo erakundeek, Udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute dirulaguntza eskaera.

Las personas o entidades interesadas deberán presentar la solicitud de subvención en el impreso normalizado facilitado por el Ayuntamiento.

Eskaera orriarekin ondorengoa aurkeztu beharko da:

La solicitud deberá ir acompañada de:

— Pertsona fisikoen taldeen kasuan bakarrik: II. Eranskina (oinarriei erantsitako dokumentua)

— Sólo en el caso de grupos de personas físicas: Anexo II. (documento anexo a las bases)

— Bankuak emandako kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria.

— Certificado de titularidad de la cuenta corriente suministrada por el Banco.

— Proiektuaren azalpen txostena, PDF formatoan gutxienez honakoak barne hartuta:

— Memoria explicativa del proyecto, que incluya al menos en formato PDF:

.Proiektuaren laburpena (gehienez 4.000 karaktere)

.Resumen del proyecto (máximo 4.000 caracteres)

.Egonaldia den aldirako edo aldietarako (fase ezberdinetan banatu nahi bada prozesua) aurreikusitako lanerako plana edo kronograma proposamen bat. (gehienez 3.000 karaktere). Horretarako 14. puntuan adierazten diren datak kontuan izan beharko dira.

.Una propuesta de plan de trabajo o cronograma previsto para el periodo o periodos de estancia (si se quiere descomponer el proceso en diferentes fases). (máximo 3.000 caracteres). Para ello se tendrán en cuenta las fechas indicadas en el punto 14.

.Horietaz gain, proiektuaren dossierra, bideo-azalpena edo informazio gehigarri osagarria ere aurkeztu daiteke.

.Además, se puede presentar un dossier del proyecto, una explicación de vídeo o información adicional complementaria.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

— Konpainiaren eta partaideen curriculuma, ibilbide artistiko eta profesionalarekin.

- Bitartekaritzarako proposamena

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

Zergak aipatutako Foru-Ogasunetan ordaintzen ez dituzten eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela adierazten duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

— Zinpeko deklarazioa, non beste sail, erakunde, organismo, eta abarrei egindako dirulaguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntzenak.

— Euskarak eta berdintasunak zein tratamendu izango duen jardueraren hedapenean.

**BOSGARRENA.-Bitartekaritzarako proposamena**

Legamian parte-hartzeak Errenteriako udalak duen bitartekaritza programan parte hartzeko derrigortasuna dakar.

Kultura sailetik gauzatzen diren programei kultur eta arte inguruko bitartekaritzan laguntza eskaintzeko lantaldea du Errenteriako udalak eta beraien laguntzarekin egonaldian hautatuak izan diren konpainiek herriko ikastetxe, kultur eragile edo publiko desberdinekin lanketak egingo dituzte.

Errenteriako Udalak antolatzen dituen programa edo jaialdi desberdinetan ere izan daiteke bitartekaritza programa, Atlantikaldia jaialdian esaterako.

.Mediaziorako proposamena:

— Curriculum de la compañía y de sus participantes con trayectoria artística y profesional.

- Proyecto de mediación

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.

- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

Los solicitantes que no tributen en las citadas Haciendas Forales deberán presentar la documentación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias.

— Declaración jurada en la que se harán constar las solicitudes de subvenciones o, en su caso, las subvenciones concedidas a otros Departamentos, entidades, organismos, etc.

— El tratamiento del euskera y de la igualdad en la difusión de la actividad.

**QUINTA.- Propuesta de mediación**

La participación en Legamia conlleva la obligación de participar en el programa de mediación del Ayuntamiento de Errenteria.

El Ayuntamiento de Errenteria cuenta con un grupo de trabajo de apoyo a los programas que se llevan a cabo desde el Departamento de Cultura en la mediación cultural y artística, y con la colaboración de las compañías seleccionadas durante la estancia realizarán labores con los diferentes centros escolares, agentes culturales o públicos de la localidad.

El programa de mediación también puede tener lugar en los diferentes programas o festivales que organiza el Ayuntamiento de Errenteria, como es el caso del festival Atlantikaldia.

.Propuesta de mediación:

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

Legamian parte-hartzeko eskaerarekin batera bitartekaritza proposamena aurkez daiteke bertan azalduaz zein eragile, dinamika, ekintza mota eta bitartekaritzari planteatzen diren.

Mediazio proposamena aurkeztea ez da derrigorrezkoa, behin bertan izanda, bitartekaritza laguntza bidez sortu, moldatu edota berpentsatu daiteke baina konpainiek aurkezten dituzten proposamen egingarri eta landuak positiboki baloratuko dira.

(gehienez 5.000 karaktere)

**SEIGARRENA.- Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

Deialdi honetan izena emateko epea deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun balioduneko epea amaitu arte egongo da zabalik.

Dirulaguntza-eskabideak aurkeztu ahalko dira:

- Elektronikoki Errenteriako Udaleko web orriko egoitza elektronikoaren bidez (https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura).

Pertsona juridikoek eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan aurreikusitako gainontzekoek ezinbestean bide hau erabili beharko dute.

- Aurrez aurre: ZU! Zure Udala – Arreta zerbitzuan (Udaletxe beheko solairua - Herriko plaza,z/g edo Aldakonea eraikinan, aldakonea 2 helbidean– Tlf: 943 449600).

- Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan.

**ZAZPIGARRENA.- Hautapen batzordea eta irizpideak**

Kide anitzeko hautapen batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu proposamen guztiak oinarri hauetako zazpigarren puntuan ezarritako ebaluaziorako irizpideen, formen eta lehentasunen arabera.

Balorazio batzordea arte eszenikoetan adituak diren kideez osatua egongo da eta gutxienez ondoko hiru hauek egongo dira: Kultura Departamentuko teknikaria, Errenteriako konpainia egoiliarren ordezkari bat, Udalak kontratatutako kultur bitartekaritza enpresako ordezkari bat.

La solicitud de participación en Legamia puede ir acompañada de una propuesta de mediación en la que se expliquen los agentes, la dinámica, el tipo de acción y la mediación que se plantean.

La presentación de la propuesta mediadora no es obligatoria, una vez presente, la mediación podrá crearse, adaptarse o replantearse mediante el apoyo del servicio de mediación, pero las propuestas pertinentes y elaboradas que presenten las compañías serán valoradas positivamente

(máximo 5.000 caracteres)

**SEXTA.- Lugar y plazo de presentación de solicitudes**

El plazo de inscripción en la presente convocatoria permanecerá abierto hasta que finalice el plazo de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria y de sus bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes de subvención podrán presentarse:

- Electrónicamente a través de la sede electrónica de la página web del Ayuntamiento de Errenteria https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura.

Las personas jurídicas y demás previstas en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, estarán obligadas a utilizar esta vía.

- Presencial: ZU! - Servicio de Atención (Planta Baja del Ayuntamiento - Herriko Plaza s/n o Edificio Aldakonea, c/aldakonea 2 - Tlf: 943 449600).

- Por cualquiera otra de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

**SÉPTIMA.- Comisión de selección y criterios**

Todas las propuestas serán examinadas y valoradas por una Comisión Mixta de Selección en función de los criterios, formas y prioridades de evaluación establecidos en el punto séptimo de estas bases.

La Comisión de Valoración estará integrada por miembros especialistas en artes escénicas, con un mínimo de tres: Un técnico del Departamento de Cultura, un representante de las compañías residentes de Errenteria, un representante de la empresa de mediación cultural contratada por el Ayuntamiento.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

Hautapen batzordea osatuko duen taldeko kideen zerrenda Errenteriako Udalaren https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura webgunean argitaratuko da.

La relación de los miembros del equipo que formará la comisión de selección se publicará en la página web del Ayuntamiento de Errenteria https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura.

**ZORTZIGARRENA.- Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Epaimahaia edozein delarik ere, irizpide hauek izango dira kontuan hartuko direnak:

- Proiektuaren kalitatea, berrikuntza.
- Bilaketarako gogoa eta zalantzak eta hausnarketak pizteko gaitasun maila.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- CV eta portfolio edo dossier artistikoa.
- Euskarazko proposamenak positiboki baloratuko dira.
- Mediazio asmoetarako proiektuak duen potentziala eta mediaziorako proposamena bera.

Aurkeztutako proiektuak ez dira soilik produkzioetara zuzendutako proposamenak izan behar. Ikerketa eta esperimentazio egonaldietarako proiektuak ere onartuko dira. Era berean dantza, antzerki, zirku edota hauen arteko nahasketa proiektuak aurkeztu ahal izango dira, eta ez da diziplinen arteko lehentasun edo mugarik jarriko.

**OCTAVA.- Criterios de valoración de las solicitudes**

Cualquiera que sea el Tribunal, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

- Calidad del proyecto, innovación.
- Interés por la búsqueda y capacidad para suscitar dudas y reflexiones.
- Viabilidad del proyecto.
- CV y portfolio o dossier artístico.
- Las propuestas en euskera se valorarán positivamente.
- El potencial del proyecto de mediación y la propia propuesta de mediación.

Los proyectos presentados no deben ser únicamente propuestas dirigidas a producciones. También se admitirán proyectos para estancias de investigación y experimentación. Asimismo, podrán presentarse proyectos de danza, teatro, circo o mezcla entre ellos, sin que se establezca una preferencia o límite interdisciplinar.

**BEDERATZIGARRENA.- Hautatutako proiektuen zerrenda**

Hautapen batzordeak jasotako proposamenak ebaluatu ondoren, Legamia deialdian hautatuak izan diren proiektuak, onuradunak eta zein baliabide jasoko duen proposamenak jasotzen duen txostena emango du, behar bezala arrazoitua.

**NOVENA.- Relación de proyectos seleccionados**

Una vez evaluadas las propuestas recibidas por la Comisión de Selección, se emitirá un informe debidamente motivado en el que se recojan los proyectos seleccionados, los beneficiarios y los recursos a percibir en la convocatoria Legamia.

**HAMARGARRENA.-Dirulaguntzaren ebazpena**

Hautapen batzordearen erabakia kontutan izanda, Kultur zinegotzi delegatuak behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du.

Proposamen horrek dirulaguntza ematea proposatzen dituen proiektuen zerrenda eta zenbatekoa adieraziko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuta, hala nola ezestea proposatutako eskaera zerrenda, baita horiek ezesteko arrazoiak ere.

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio.

Ebazpena udal iragarki oholean eta udal web gunean argitaratuko da. Hein berean banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza ukatzen zaien pertsona edo entitate eskatzaileei.

**DÉCIMA.- Resolución de la subvención**

A la vista del acuerdo de la Comisión de Selección, la Concejala Delegada de Cultura elevará propuesta de resolución debidamente motivada.

Dicha propuesta incluirá una relación de los proyectos para los que se propone la concesión de la subvención, con expresión de su evaluación y los criterios de valoración utilizados para su realización, así como la desestimación de la solicitud propuesta y las razones para su desestimación.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución se publicará en el tablón de anuncios municipal y en la página web municipal. Asimismo, se notificará individualmente a las personas o entidades solicitantes a las que se deniegue la subvención.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

**HAMAIKAGARRENA.- Deialdiaren emaitza eta onarpena.**

Deialdiaren emaitza, Udalaren https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura webgunean argitaratuko da.

Emaitza argitaratu eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

**HAMABIGARRENA.- Jabetza intelektuala eta irudi eskubideak**

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatuko dute.

Hautatutako sortzaileak Errenteriako Udalari utziko dizkio proiektuari dagozkion irudi eskubideak, Egonaldi programa honi buruzko jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo dena delakoetarako, bai paperean zein modu digitalean argitaratzeko. Guzti hauek programaren difusioarekin lotutako beharrak izango dira, inoiz ez helburu komertzialak dituztenak, eta betiere konpainia edota sortzaileekin adostutakoak izango dira.

Programa honen barruan garatutako proiektuek etorkizunean izan ditzaketen ekintza komunikatiboetan (dossier, afitxa eta antzekoetan) Errenteriako Udalaren eta Kulturakreaktiboaren logotipoa gaineratu beharko dute.

**HAMAHIRUGARRENA.- Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak**

Deialdian aurkezteak honako baldintza hauek onartzea dakar:

1. Gutxienez astebeteko eta gehienez 3 asteko iraupena duen egonaldi batean parte hartzea, elkarren segidakoak izan beharrik gabe.

3. Egonaldiak batez ere astegunez izango dira, astelehenetik ostiralera (15:00ak arte), hala ere espazioen erabilerak baimentzen badu, asteburuetan ere luzatu daitezke.

**UNDÉCIMA.- Resultado y aceptación de la convocatoria.**

El resultado de la convocatoria se publicará en la página web del Ayuntamiento https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura.

Si en el plazo de quince días tras la publicación del resultado las personas o entidades beneficiarias no renuncian expresamente a la subvención concedida, se entenderá que ésta queda aceptada.

**DUODÉCIMA.- Propiedad intelectual y derechos de imagen**

Los participantes serán los autores y responsables de la originalidad de los proyectos que presenten y garantizarán que todos los derechos de propiedad intelectual sobre los mismos les correspondan legalmente.

La persona creadora seleccionada cederá al Ayuntamiento de Errenteria los derechos de imagen correspondientes al proyecto para publicaciones, catálogos, etc., de las actividades relativas a este Programa, así como para su publicación en formato papel o digital. Todas ellas serán necesidades relacionadas con la difusión del programa, nunca con fines comerciales, y siempre consensuadas con compañías y/o creadores.

Los proyectos desarrollados en el marco de este programa deberán incorporar el logotipo del Ayuntamiento de Errenteria y del Fondo Cultural en sus futuras actuaciones comunicativas (dossieres, carteles, etc.).

**DECIMOTERCERA.- Obligaciones del beneficiario de la subvención**

La presentación a la convocatoria supone la aceptación de las siguientes condiciones:

2. La participación en una estancia de duración mínima de una semana y máxima de 3 semanas, sin necesidad de ser consecutivas.

4. Las estancias serán principalmente laborables, de lunes a viernes (hasta las 15:00 horas), aunque si el uso de los espacios lo permite, podrán prolongarse los fines de semana.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

Konpainiak egonaldia edo egonaldiak aurrera eramateko data proposamena egingo du 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ko denbora tartean, ondoren adierazitako datak kontuan izanik. Ala ere Udalarekin espazioen erabilgarritasunaren arabera datak moldatzeko eginahala egingo du. Egutegia ezin bada adostu, dirulaguntza eta egonaldian parte hartzeko aukera galduko dira.

Egonaldirako Sorlekuan gordetako datak :

5. - Otsailak 10/14
6. - Otsailak 17/20
7. - Martxoak 10/14
8. - Martxoak 24/28
9. - Maiatzak 5/9
10. - Ekainak 9/13
11. - Ekainak 16/20
12. - Ekainak 30 – uztailak 4
13. - Uztailak 7/11
14. - Irailak 22/26
15. - Irailak 29 – urriak 3
16. - Urriak 6/10
17. - Urriak 27/31

Deialdi honetan parte hartzeak Legamia egitasmoaren asmo eta xedeekin bat egitea suposatzen du. Hau da, sorkuntza prozesua egonaldian garatzeaz gain, lan hau herriko eragileekin partekatzeko motibazioa edo borondatea beharrezkoa izango da. Partekatze honen nondik norakoak (mediazio dinamikak eta edukiak, egutegiak, epeak, moduak,...) alde guztien akordio eta ikuspuntuak bilatuko duen elkarrizketaren bidez erabakiko da.

**HAMALAUGARRENA.- Eskaintzen diren baliabideak**

Errenteriako Udalak honako baliabideak eskaintzen dizkiei hautagaiei. Sortzaileak edo sortzaile taldeak baliabide bat edo gehiago eskura ditzake, sormen-proiektuaren beharren eta fasearen arabera. Eskaera orrian adierazi beharko da zein baliabide beharko dituen, sorkuntzarako espazioa eta mediazio taldearekin elkarlana gutxienekoa izanda.

La compañía elaborará una propuesta de fecha de realización de la estancia o estancia en el período comprendido entre el 1 de enero de 2025 y el 31 de diciembre de 2025, teniendo en cuenta las fechas que a continuación se indican. Asimismo, ejercerá la potestad con el Ayuntamiento de adaptar las fechas en función de la disponibilidad de espacios. En caso de que no se pueda acordar el calendario, se perderá la subvención y la posibilidad de participar en la estancia.

Fechas reservadas en Sorlekua para la estancia:

18. - 10/14 de Febrero
19. - 17/20 Febrero
20. - 10/14 de marzo
21. - 24/28 de marzo
22. - 5/9 de Mayo
23. - 9/13 Junio
24. - 16/20 de junio
25. - 30 de junio - 4 de julio
26. - 7/11 de julio
27. - 22/26 Septiembre
28. - 29 de septiembre – 3 de octubre
29. - 6/10 Octubre
30. - 27/31 de octubre

La participación en esta convocatoria supone la adhesión a los propósitos y objetivos del proyecto Legamia. Es decir, además de desarrollar el proceso creativo durante la estancia, será necesaria la motivación o voluntad para compartir este trabajo con los agentes del municipio. La concreción de esta compartición (dinámicas y contenidos mediáticos, calendarios, plazos, modos,...) se determinará a través de un diálogo que busque acuerdos y puntos de vista de todas las partes.

**DECIMOCUARTA.- Recursos que se ofrecen**

El Ayuntamiento de Errenteria pone a disposición de las personas candidatas los siguientes recursos: El/la creador/a o equipo creativo puede disponer de uno o más recursos en función de las necesidades y fase del proyecto creativo. En la solicitud se indicarán los medios necesarios, siendo mínimo el espacio para la creación y la colaboración con el equipo mediador.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

3.1. Sorkuntzarako espazioak

Errenteriako Udalak proiektu motaren, ezaugarrien, sorkuntza prozesu fasearen eta erabilgarritasunaren arabera espazio ezberdinak eskainiko ditu: Lekuona Fabrikako Sorlekua, edota Niessen Kulturgunea, adibidez.

3.1. Espacios para la creación

El Ayuntamiento de Errenteria ofertará diferentes espacios en función del tipo de proyecto, características, fase de proceso creativo y utilidad: Sorlekua de la Fábrica Lekuona, o el Centro Cultural Niessen, por ejemplo.

3.2. Mediazio taldearekin elkarlana

Sorkuntza lanaren inguruko mediazio proposamena eraiki eta burutzeko konpainiaren parte-hartzea ezinbestekoa izango bada ere, proiektu hauek aurrera ateratzeko mediazio taldearen elkarlan eta babes osoa izango da (tokiko eragileekin harremanak, logistika,...). Laguntza talde hau, Kultura Departamentuko kideez, Errenteriako konpainia egoiliarrez, eta Lekuona Fabrikako mediazio zerbitzuko kideez osatuta egongo da. Talde hori arduratuko da, konpainiarekin edo sortzailearekin batera, tokiko eragileekin dinamika diseinatu eta gauzatzeaz, koaderno pedagogikoak egiteaz, ekintzez eta abarrez.

3.2. Colaboración con el equipo de Mediación

Aunque para la construcción y ejecución de la propuesta mediadora sobre el trabajo creativo será imprescindible la participación de la compañía, para la realización de estos proyectos se contará con la plena colaboración y apoyo del equipo mediador (relaciones con los agentes locales, logística,...). Este grupo de apoyo estará compuesto por miembros del Departamento de Cultura, compañías residentes en Errenteria y miembros del servicio de mediación de la Fábrica Lekuona. Este grupo, junto con la compañía o el/a creador/a, se encargará de diseñar y ejecutar la dinámica con los agentes locales, elaborar cuadernos pedagógicos, acciones, etc.

3.3. Ostatua

Egonaldiak iraun bitartean Errenteriako Udalak hautazko ostatua eskainiko dio sortzaile edo sortzaile taldeari ezarritako erabilera prozedura jarraituz. Errenteriako alde zaharrean dagoen apartamentuan ostatu hartu ahal izango dute.

3.3.- Alojamiento

Durante el periodo de estancia, el Ayuntamiento de Errenteria proporcionará alojamiento opcional al colectivo o persona creadora siguiendo el procedimiento de utilización establecido. Podrán alojarse en un apartamento situado en el casco histórico de Errenteria.

3.4. Baliabide teknikoak

Egonaldi teknikoen kasuan Kultura Departamentuko ikusentzunezko teknikarien gainbegiratzea izango da. Konpainiak ordu kopuru bat proposatu beharko du, ondoren Udalarekin egonaldiaren behar eta iraupenaren arabera adostuko dena. Gune eszenikoetan egun dauden baliabide teknikoak konpainien zerbitzura jarriko dira, betiere hauek kudeatzeko teknikari profesionala duten bitartean.

3.4. Medios técnicos

En el caso de estancias técnicas, existirá la supervisión de los técnicos audiovisuales del Departamento de Cultura. La compañía deberá proponer un número de horas que posteriormente se acordará con el Ayuntamiento en función de las necesidades y duración de la estancia. Los recursos técnicos actualmente existentes en los espacios escénicos se pondrán al servicio de las compañías, siempre y cuando estos cuenten con una persona profesional que los gestione.

3.5. Baliabide ekonomikoak

Aurkeztutako proiektu bakoitzak gehienez 4.000,00€-ko dirulaguntza jasoko du. Ekarpen honi, kasuan-kasu dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

Taldeen kasuan, zenbateko hori eskatutako proportzioan banatuko da, eta kasu bakoitzari dagozkion atxikipenak aplikatuko zaizkio.

Zenbatekoa egonaldi-egun, mediazioari eskainitako denbora eta konpainia osatzen duen pertsona kopuruaren arabera kalkulatuko da. Honako hau hautapen batzordeak baloratuko du.

3.5. Recursos económicos

Cada proyecto presentado recibirá una subvención máxima de 4.000,00 €. A esta aportación se le aplicará la retención que en cada caso corresponda.

En el caso de los grupos, dicho importe se distribuirá proporcionalmente a lo solicitado, siendo de aplicación las retenciones que correspondan en cada caso.

La Comisión de Seleccón, calculara la cuantía, en función de la fecha de estancia, del tiempo dedicado a la mediación y del número de personas que integran la compañía.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

Sortzaile eta konpainiek egiten duten mediazio proposamena lanerako abiapuntu gisa ulertuko da, zeinaren gainean elkarlana garatu ahalko den, ez proposamen itxi bezala.

La propuesta de mediaicón que realizan las personas creadoras y las compañías se entenderá como punto de partida para el trabajo, sobre el que se podrá desarrollar la colaboración, no como una propuesta cerrada.

**HAMABOSGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa**

**DECIMOQUINTA.- Pago de las subvenciones**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, %70a egonaldi hasieran eta %30a memoria aurkeztu eta hilabetera.

La subvención se abonará en dos pagos, el 70% al inicio de la estancia y el 30% al mes de la presentación de la memoria.

Jasotako laguntzek legez dagokien zerga atxikipena aplikatuko zaie.

Las ayudas percibidas estarán sujetas a la retención fiscal que legalmente proceda.

Behin diru ekarpena jaso ondoren konpainiak egonaldiarekin ez jarraitzea erabakiko balu edo dagokion bete beharrak ez dituela betetzen ikusiko balitz, jasotako diru kopurua itzuli beharko du.

Si, una vez recibida la aportación económica, la compañía decidiera no continuar su estancia o comprobare el incumplimiento de sus obligaciones, deberá reintegrar la cantidad percibida.

**HAMASEIGARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazioa**

**DECIMOSEXTA.- Justificación de la subvención**

Egonaldi programa honetan parte hartzen duen sortzaile edo sortzaile taldeak egonaldiari buruzko memoria bat aurkeztu beharko du, sorkuntza prozesuaren dokumentatze lan moduan balio beharko duena. Proiektua amaitu eta gehienera, hiru hilabeteko epean. Beti ere, urtarrilaren 2026ko 31ra arte.

El equipo creador o creador que participe en este programa de estancias deberá presentar una memoria de la estancia que sirva de documentación del proceso creativo. En el plazo máximo de tres meses desde la finalización del proyecto. En todo caso, hasta el 31 de enero de 2026.

Memoria aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren bigarren zatia.

El segundo pago de la subvención se efectuará tras la presentación de la memoria.

**HAMAZAZPIGARRENA.- Justifikazioa egiaztatzea**

**DECIMOSÉPTIMA.- Comprobación de la justificación**

Kultura Departamentuko teknikariak egiaztatuko du aurkeztutako memoria egokia dela eta ondorioz, dirulaguntza egoki justifikatu dela, hala nola jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo gozatzeko erabaki duen helburua bete dela. Horretarako dagokion txostena emango du.

El personal técnico del Departamento de Cultura comprobará que la memoria presentada es la adecuada y que, en consecuencia, la subvención ha sido debidamente justificada, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida o disfrutada. A tal efecto emitirá el correspondiente informe.

**HEMEZORTZIGARRENA.- Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna bestelako dirulaguntzekin**

**DECIMOCTAVA.- Límite, compatibilidad y simultaneidad de la financiación con otras subvenciones**

Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento en virtud de la presente normativa serán compatibles con cualesquiera otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier Administración o ente público o privado.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

Aurrekoa gertatuz gero, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari lortu dituela dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek, eta, nolanahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

En este último caso, deberá comunicar al órgano concedente, tan pronto como éste tenga conocimiento de la obtención de tales subvenciones, ayudas, ingresos o recursos y, en todo caso, con carácter previo a la justificación de la aplicación dada a los fondos recibidos.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**HEMERETZIGARRENA.- Araubide Juridikoa**

Dena den, dirulaguntza deialdiaren oinarri zehatz hauetan aurreikusirik gabeko guztian, ondorengo hauek ezarririkoa beteko da: Errenteriako Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorrak, Errenteriako Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Udal ordenantza, Dirulaguntzen **3**8/2003 Lege Orokorra**,** abenduaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.

**DECIMONOVENA.- Régimen Jurídico**

En todo caso, en lo no previsto en las presentes bases específicas de la convocatoria de subvenciones, se estará a lo dispuesto en las siguientes: Bases generales de las subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006 y su normativa de desarrollo.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

## ERANSKINA II

**(Pertsona fisikoen taldeen kasuan bakarri betetzeko)**

**PERTSONA FISIKOEN TALDEEN LANKIDETZA-AKORDIOA, DIRULAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO**

**Legamia 2025: Arte bizien sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka**

**BILDUTAKOAK**

- Alde batetik, ______________________________ jauna/andrea NAN: _________________ helbidea: ____________________________________.
- Alde batetik, __________________________ jauna/andrea ......NAN: ____________________ helbidea: ____________________________________.

**(Gehitu taldeak dituen pertsona guztiak)**

Alderdiek elkarri aitortzen diote hitzarmena egiteko gaitasuna eta zilegitasuna, eta, horretarako, honako hau,

**AZALTZEN DUTE**

1.- Akordio honen helburua pertsona fisikoen talde bat eratzea da, LEGAMIA 2025 DIRULAGUNTZAREN deialdiaren onuradun izateko: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako beka.

## ANEXO II

**(A rellenar sólo en el caso de agrupación de personas físicas)**

**ACUERDO DE COLABORACIÓN DE AGRUPACIÓN DE PERSONAS FÍSICAS PARA SER BENEFICIARIAS DE SUBVENCIONES**

**Legamia 2025: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas**

**REUNIDOS/AS**

- De una parte, D./Dña.__________________________________ , con DNI _________________ y domicilio en _________________________________________.
- De una parte, D./ Dña.__________________________________, con DNI_____________________ y domicilio en _________________________________________.

**(Añadir tantas personas como tenga la agrupación)**

Las partes se reconocen capacidad y legitimidad para convenir, para cuyo efecto,

**EXPONEN**

1.- Que el objetivo del presente acuerdo es constituir una agrupación de personas físicas a fin de obtener la condición de beneficiaria de la convocatoria de la SUBVENCIÓN LEGAMIA 2025 beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas **.**

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

2.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluak ezartzen duenez, pertsona fisiko edo juridikoen talde publiko edo pribatu nortasunik gabeak direnean, berariaz jaso beharko dira, bai eskaeran, bai dirulaguntza emateko ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta horiek ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adinako ahalordea izango duena. Ezin izango da elkartea desegin lege honen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

2.- Que el artículo 11 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece que cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios. En cualquier caso, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de esta ley.

3.- Sinatzaileek ordezkatzen dituzten pertsonek Legamia 2025: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako beka deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela, onuradun izateko, eta elkarrekin honako proiektu eta/edo jarduera hau gauzatu nahi dutela:

“____________________________________________
____________________________________________”

3.- Que las personas representadas por los firmantes reúnen los requisitos establecidos en las bases de la convocatoria de Legamia 2025: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas para tener la condición de beneficiarias, y que pretenden llevar a cabo conjuntamente, el siguiente proyecto y/o actividad:

“____________________________________________
____________________________________________”

## EBATZI

Lankidetza-hitzarmen hau sinatzea, aurreko hirugarren atalean identifikatutako proiektua eta/edo jarduera gauzatzeko, honako klausula hauen arabera:

## ACUERDAN

Suscribir el presente acuerdo de colaboración para la ejecución del proyecto y/o actividad identificado en el apartado tercero anterior de acuerdo con las siguientes:

## KLAUSULAK

**Lehenengoa.-** Alderdiek adierazi dute lehenengo atalean identifikatutako deialdian batera parte hartu nahi dutela.

## CLÁUSULAS

**Primera.-** Las partes manifiestan su voluntad de concurrir conjuntamente a la convocatoria identificada en el apartado primero.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

**Bigarrena.-** Alderdiek ______________________________________________ ________________________________ jauna/andrea identifikatu dute elkartearen ordezkari gisa (NAN: ______________________). Ordezkari horrek behar besteko ahalmena izango du erakunde onuradun gisa taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko.

**Hirugarrena.-** Talde honetako kideek erantzukizun solidarioa izango dute diruz lagundutako jarduera itzultzeko betebeharrei dagokienez, bai eta diruz lagundutako jardueratik erator daitezkeen arau-hauste administratiboei dagokienez ere.

**Laugarrena.-** Akordio hau sinatuta, pertsona fisikoek adierazten dute banaka betetzen dituztela Legamia 2025rako deialdiaren oinarrietan aurreikusitako baldintzak: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako bekak, onuradun izateko, eta, bereziki, adierazten dute ez daudela sartuta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetako batean ere.

**Bosgarrena.-** Taldeko kideek konpromisoa hartzen dute proiektu eta/edo jarduera bakoitzerako ondoren zehazten diren ehunekoak pertsona bakoitzeko gauzatzeko.

**Segunda.-** Las partes identifican como representante de la agrupación a Don/Doña ______________________________________________ ________________________________, con DNI ______________________. Este representación tendrá poder suficiente para cumplir con las obligaciones que, como entidad beneficiaria, corresponda a la agrupación.

**Tercera.-** Los miembros de la presente agrupación responderán solidariamente respecto de las posibles obligaciones de reintegro en relación a la actividad subvencionada, así como de las infracciones administrativas que pudieran derivarse de la actividad subvencionada.

**Cuarta.-** Con la firma del presente acuerdo las personas físicas declaran que cumplen a título individual los requisitos previstos en las bases de la convocatoria de Legamia 2025: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas para tener la condición de beneficiarias y en especial, declaran no estar incursas en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiarias señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

**Quinta.-** Las personas integrantes de la agrupación se comprometen a ejecutar los porcentajes por persona que se detallan a continuación para cada proyecto y/o actividad.

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

**1.Proiektua eta/edo jarduera:**

**1.- Proyecto y/o actividad:**

| **Nombre / Apellidos** | **Compromisos de ejecución** | **Porcentaje de subvención que les corresponderá** |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| Total | 100 % | 100 % |

**Seigarrena.-** Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute akordio honen indarraldiari eusteko eta elkartea ez desegiteko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

**Sexta.-** Las personas firmantes se comprometen a mantener la vigencia del presente acuerdo y no disolver la agrupación hasta que transcurra el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

Lankidetza-hitzarmen honetan adierazitakoarekin ados daudela adierazteko, alderdi guztiek honako hau sinatu dute:

En prueba de conformidad con lo expresado en este acuerdo de colaboración, se firma por todas las partes:

**Izena**

______________________________________________

_

**Nombre**

______________________________________________

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.

DECLARA la persona firmante, bajo su responsabilidad, que todos y cada uno de los datos aportados son veraces, exactos, completos y actualizados.

DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden arauei jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen araberako eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera

PROTECCIÓN DE DATOS. De conformidad con la normativa vigente en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos personales recabados en este impreso se podrán verificar o completar mediante consulta a otras administraciones publicas. Dichos datos serán tratados por el Ayuntamiento, para la realización de

ESKU5ef9bf51-901e-4242-a04f-39632ff2d065

tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz.

Informazio gehiagorako kontsutatu gure pribatasun politika:
https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216.

Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, berauen aurka agertu, tratamentua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria.

Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

tareas y servicios propios en el ámbito de sus competencias. El Ayuntamiento tratará sus datos acorde a la normativa vigente, aplicando las medidas de seguridad necesarias y no serán cedidos a terceros salvo exigencias legales.

Para más información consulte nuestra política de privacidad: https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=CA06712216.

Asimismo se le informa de la posibilidad de ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación, oposición, limitación de tratamiento y portabilidad de datos mediante el oportuno escrito, por medios electrónicos o bien presencialmente o por correo convencional al Ayuntamiento, Herriko plaza z/g 20100 Errenteria.

Por ultimo, si facilita datos personales de otras personas físicas deberá, previamente informarles de los anteriores extremos.

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024SDBD0033-oinarri zehatzak/bases específicas (ERRENTERIAKO UDALA) |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MIREN AMAIA AROTZENA MUXIKA - 15986574X
Gizarte Zerbitzuetako koordinatzailea
Data / Fecha: 2024/12/24 11:24:15